

Anjel Lertxundi

# Nentorrena nauzu: Meschiach

—B AKOITZAK BERE HOMOLOGAZIOA dik eta, *New York Times*-ek Paul Auster-i bezala, EGUNKARIAK gabonetako ipuin bat eskatu zidak...

—*Smoke* filmean bezala, beraz. Eta?

—Baiezkoa eman nieran. Telefonoa esekitakoan hasi zituana, ordea, damuak. Gabonetako kontu bat! Ez diat astirik, ez diat gogorik, ez ditiat gabonak maite...

Goiuriako *Ikuspegi*-n gaude. Durango daukagu oinetan, laino gris sabel-hanpatuen mende. Anttonek zigarro bat hartu du Ducados paketetik eta hatz-puntez ferekatu, lapitzei eta Rottringei dien begiramenez. Zigarroa piztu du gero, eta kea gozatu du luzaz.

—Ez duk telefonoa berriro hartu, eta ezetza emateko ausardiarik izan.

Hitzekin batera datorkidan kea saihestu nahirik, albo batera eragin diot buruari. Anttonek burlaizzez dauzka begiak. Beti maiseatu diat ezetz esateko dudana ezin kol-darra.

Ezpainak bildu eta arnasa hartu dut. "Bego: mendekua baso hotzean". Auggie-rena egiten jarri behar dut Antton. Lehen elurrek lurra zuritu ohi duten antzera: oharkabean, astiro, leun...

Trago luzea eman diot nire kopari.

—Demagun judua dela, eta ez beltza, ipuineko emakumea.

Anttonek bekaina kizkuratu du, jatetxeko marmar-sareak eta leihoko argiak pentsatzea galeraziko baliote bezala. Birigarroaren hanka-hegoak bizkan nola, Anttonen irudimena halatsu lotu da emakume juduaren aukerara:

—Onar dezagun filmeko hasiera... Auggie korrika zoak lapur baten atzetik, eta, halako batean, kartera erori zaiok lapurrari, eta abar.

Keinu egin du airean, eta hastapen-detaile horiekiko desaxola erakutsi dit. Badakit artean ez duela Saizarbitoriarena irakurri ("ez du garrantzi handirik historia bati nondik ekiten zaien, batera zein bestera amaiera berbera izango baita"), baina bada-ki, halaber, gutxi axola zaizkiola hastapenetako arotz-lanak. Harira doa, bada, Anttonen irudimena, eta, hala behar eta, emakume juduaren afe aurrean jarri du Auggie. Bere hitzen bizkan itsatsirik dago, mende daukat, Anttoni esker bete ahal izango dut EGUNKARIAKOEI emandako hitza.

Aurrera baino lehen, ordea: mundua binetetan irudikatzea du Anttonek ofizio. Mundua nolako, binetak halako.

Anttonek esaten duena ikusterik bagenu, binetetan jasoko genuke haren jarduna, eta bineta modura interpretatu dut neuk ere Anttoni interesatzen zaien ixtorioaren benetako motorea: kontrapikatu bat goitik, eta Auggie ate-joka etxe apal batean:

—Nor da?

Atearen begiraxuloko kristalak deformaturiko emakumeak osatzen du kontraplanoa, eta atea nori ireki behar ote dion jakin nahi du. Auggie-k Auggie dela esan dezake, kale-kantoiko zigarro-saltzailea. Zerbait entregatzera datorrela ere esan dezake. Emakumearen iloba Roger-ek lapurreta baten ondoren galdutako kartera, adibidez. Esan dezake Roger dela ere. Ahotsari erreparatuz gero, emakumea adintsua dela esan liteke, eta nahikoa gorturik egongo da ahots-aldaketaz jabetzeko...

Ahotsa katarro-itxuraz kraskatu, eta "Roger, zure iloba", esatera doan unean, matxingarratzez egindako janari usaina heldu zaiou Auggie-ri. Kale-kantoiko zigarro-saltzaileak berehala ezagutu du *schav* zopa, euskaldunon barazuri-zoparen antzeko juduen betegarri apala (lotura etno-gastronomikoaren esanera, Antton narratzaile nagusitu zaiou hemen Auggie pertsonaiari).



Ez gara *New York Times* baino gutxiago, eta euskal idazle zinefiloetako bati eskatu diogu gabonetako ipuina, Anjel Lertxundiri. 1948an jaio zen Lertxundi Orion, eta obra oparoa dauka argitaratua. Bere azken liburuak: *Otto Pette* eleberria eta *Piztiaren* izena.

—Nor da? —galdetu du ostera emakumeak.

—Shalom. Nentorrena nauzu... Meschiach...

Atea zabaldu da. Urte joanen dotorezia dute emakumearen ile urdinuak, aurpegi zimurtsuak, ibilerak...

Emakumeak eskua jaso du airean, Auggie-ren aurpegiaren bila.

—Non zaude? —Auggie-k aurpegia aurreratu du emakume itsuarengana. Emakumearen hatz-punta zimurrek astiro-astiro azertu dute, detailezko planoetan, Auggie-ren aurpegia—. Oso leuna duzu azal-mintza, Mesias... Barkatu, ahaztu ere egin zaigu Meschiach esateko ohitura... Pasa, pasa zaitetz, baina. Hotz honek galduko gaitu, bestela.

Egongelara sartu dira. Zazpi besoko argi-mutil bat dago arasa gainean. Haren alboan otoitz-zaleen *Sefer hasidim* bat dago zabalik. "Gorriak ikusia nauzu", hasten da ezker orrialdeko kanta. "Etorrarazi, Yavhe, iragarria duzun eguna", eskuinaldekoa. Auggie-k hatz-punta pasatu du orrien gainetik. Haustuak daude.

Jiratu denean, amonak, eskuak sabairantz jatorik, eskerrak eman dizkio zeruari:

—Orain bai, Jauna: zeuk hitzeman bezala, utz diezaiokezu zeure

neskame honi bakean hiltzen!

Ekonomikaren labeko atea zabaldu eta *gefillea* atera du emakumeak. Botilardo haustu bat jarri du gero mahai gainean:

—Aspalditik daukat gorderik. Nik ez dut edaten, baina... Banekien egunen batean agertuko zinela, eta...

Zaharrez erdi-ozpintzen hasita badago ere, edangarria da ardoa. *Gefille* opilak, berriz, bakailaoaren gazia du nagusi, tipularen eta piperminaren zapoaren gainetik. Auggie-k *Torá*-ko pasarte ezaguna xurxulukatu dio emakumeari, jana eta edana eskerturik:

—Horni ezazu ardansotoa, bete ezazu arasa, Salbatzailea agertzen zaizunerako... Portatu zara, bai, bihotz oneko emakume hori.

Topa egin dute bien basoek.

Eztitan dago emakumea, bere bizitzako egunik ederrena duela esaka behin eta berriro. Auggie emakumearen esku bat hartu, eta hatz-puntez ferekatu ditu zainak, azal-erretanak. Auggie-ren bihotzak, ordea, korapilo askaezin bat du. Ezin du eraman iruzurraren zabarra, gorroto du bere burua. Baina nola ukatuko dio ilusioa, nola ilaurtuko emakumeak ordezkatzen duen herri baten milaka urtetako esperantza?

Halako batean, emakumeak begiak itxi ditu, emozio sakonaren eta ardoaren eraginez. Asean dagoenak loa on, Auggie-k musu eman dio kopetaren erdian. Gero, isil-isilik, etxetik aldegin du.

Anttonek beste zigarro bat piztu du. Jantokiko marmar-sareak areagotu egin du etena. Badakit Anttonek ez duela bukaera hori maite. Baina ohartzen ote da filmeko emakume beltza emakume judu bihurtu izanak ez dakarrela ezer berririk? Ez duela juduek *Torá*ko irakurketen poza eta lilura adierazteko erabiltzen duten *Simchath* hori lortu?

Ni eragozpenka hasterako, ordea, saka-saka desegin du zigarroa hautsontzian. Sukar batek hartua dirudi, begiak distira bi eta sudur-mintzak dardarka. Hizketan hasi da berriro.

Auggie-k etxetik aldegin bezain pronto, emakumeak begiak zabaldu omen ditu. Eskuak sabairantz jaso eta buruari ezker-eskuin eragin dio:

—Ni kontsolatu nahian etorri da Mesias itxuran... eta Mesias dela sinetsirik aldegin du gizarajoak.

Gero ate itxi berrirantz begiratu du emakumeak azkeneko binetan:

—*Mazel Tov!* Zorte on, bai, guztia beharko duzu eta!

